Helduentzako ikuskizuna, gonbit-txartelaz | Espectáculo para adultos con invitación (*)

Sandra zinema-aktore ezaguna da, Goya sari bat irabazi duelako. Ustekabean, Vito lagun mina bisitan etorriko zaio. Vito jantzi denda baten jabea da, eta garai gorabeheratsua igarotzen ari da, laguna bezala. Bakoitzaren nerbio-sistema asaldatzen dituzten arazoak konpondu nahian, bi lagunek udako arratsalde gogotsua biziko dute, bizitzari zentzua aurkitzeko azken ahaleginean. *Valium* adiskidetasunari eta benetako adiskidetasunari buruzko lana da, izateari eta benetakoa izateari buruzkoa. Geure burua engainatzeko joera ergelari eta benetan ez garena garelako itxura egiteari buruzkoa.



Sandra, una actriz reconocida en el mundo del cine por haber ganado un premio Goya, recibe la inesperada visita de su amiga del alma, Vito. Vito es dueña de una tienda de ropa, una boutique que, al igual que ella, pasa por un momento algo inestable. Tratando de solucionar los problemas que están alterando sus respectivos sistemas nerviosos, las dos amigas vivirán una intensa tarde de verano en un último intento de comprender el sentido de sus vidas. *Valium* trata sobre la amistad y la amistad auténtica, sobre ser y ser auténtico. Sobre la estúpida manía de engañarnos a nosotr@s mism@s y pretender aparentar lo que en realidad no somos.

(*) Gonbidapenak ekainaren 3tik aurrera jaso ahalko dira, KaldeArtek Urrezko Zeledonen plazan jartzen duen informazio gunean. Lekuak mugatuak dira.
Las invitaciones se podrán recoger a partir del 3 de junio en el stand informativo de KaldeArte situado en la plaza de los Celedones de oro. Aforo limitado.

## 19 ROUGE ELÉA
**"Ronde-bi ahizpa"** (Iparralde)

**ETXANOBE LORATEGIAK / JARDINES DE ECHANOVE**

Larunbata 10 Sábado. 19:00
Igandea 11 Domingo. 18:00
Iraupena / Duración: 40'
Euskaraz



*Ronde-bi ahizpa* besaulki baten inguruan eta lanpara baten pean ematen den bi dantzarientzako dantza eta airezko pieza da. Konplizitate, aurkaritza eta amodiozko dantza bat. *Ronde-bi ahizpa* abaildu, jira eta buelta, saltsa eta dantza egiten du, senidetasuna goraipatzen du eta anai-arreben arteko lotura konplexuak aireratzen ditu. Gorputzek instintuz jolasean dihardute, igurzten, elkarri ihes egiten, nekatzen dira. Anai-arreben arteko erlazioa bakana da, bizitza zeharkatzen duelako.

*Ronde-bi ahizpa* es una obra de danza y aire, para dos bailarinas, que se desarrolla en torno a un sillón y bajo una lámpara. Una danza de complicidad, confrontación y amor. Se abate, gira, da vueltas, se levanta y baila, ensalza la fraternidad y saca a la luz los vínculos y relaciones complejas existentes entre hermanos y hermanas. Los cuerpos juegan instintivamente, se soportan, se rehúyen, se cansan. La relación entre hermanos y hermanas es única porque es transversal a la vida.

## 20 IVAN G. TORRE

### “Cree, crea” (Vitoria-Gasteiz)

MADE iN GASTEiZ

**PROBINTZIA PLAZA-PLAZA DE LA PROVINCIA**

Larunbata 10 Sábado. 19:30
Igandea 11 Domingo. 12:30, 18:30
Iraupena / Duración: 10’

Ivan G. Torre bertikalistak espezialitateko maisu onenekin ikasi du. Bere ikuskizunarekin Espainia, Frantzia eta Erresuma Batuko antzoki eta jaialdietan ibili ondoren, hazten ikusi zuen hirian lehen aldiz erakutsiko du. *Cree, Crea* dantza eta eskuko orekako ikuskizun garaikidea eraldatzen ari da orain. Urtebete ikertzen igaro ondoren, KaldeArten estreinatuko ditu berritasunetako batzuk.

Ivan G Torre es un verticalista que ha aprendido con los mejores maestros de su especialidad. Después de rodar su número en teatros y festivales de España, Francia y Reino Unido, estrena su espectáculo por primera vez en la ciudad que le vio crecer. Actualmente su espectáculo contemporáneo de equilibrio de manos y danza *Cree, Crea* se encuentra en evolución. Después de un año de investigación algunas novedades del mismo serán estrenadas en KaldeArte.



## 21 HAATIK

### “Itsas lapurrak” (Euskadi)

**ESPAINIA PLAZA / PLAZA DE ESPAÑA**

Larunbata 10 Sábado. 19:30, 22:30
Iraupena / Duración: 35’
Euskaraz

Euskaldunok harreman berezia izan dugu beti itsasoarekin. Nabigatzaile trebeak izan gara arrantzarako zein merkataritzarako, baina baita itsaslapurretarako ere. Zaila zen hiru jarduera horiek bereiztea. Ontzi askok burdina eta tresnak Lisboara edo Arroxelara eramanez hasten zuten bidaia, han gero balearen eta bakailaoaren arrantzarako beharrezkoa zutenaren truke aldatzeko. Baina arrantzarako bidean ahulagoa zen etsairen bat ikusiz gero, kortsario ere bihurtzen ziren harrapatutako ontzia etekinen poltsara gehitzeko. Dantzaren bidez gure itsasertzeetako bizitza irudikatu, itsasontzien joan etorriek sortzen zuten kultura ezberdinen arteko elkarbizitza azaldu eta itsas gizon eta emakumeen artean presentzia handia izan duten sineskerietan sakonduz.

L@s vasc@s hemos tenido siempre una relación especial con la mar. Hemos sido diestros navegantes, tanto en la pesca, como el comercio. Era difícil separar estas tres actividades. Muchos navíos comenzaban su viaje llevando hierro y herramientas a Lisboa o La Rochelle, para cambiarlos por lo necesario para la pesca de ballenas y bacalao. Pero si, camino de la pesca, se encontraban con un enemigo más débil, se convertían en corsarios para llenar más su bolsa. Por medio de la danza, representaremos la vida de nuestras costas, mostraremos la convivencia entre las diversas culturas traídas por los barcos, y profundizaremos en supersticiones que han estado muy presentes entre hombres y mujeres del mar.



## 22 AMAIA ELIZARAN
**"Raw"** (Euskadi)

Bat beste pertsona baten mende dagoenean, bere kabuz moldatzerik ez duenean... nola jokatzen du besteak? Beste pertsona hori bertan egongo da euskarri emateko? Une batean bakoitzaren mugak puntu batean lausotzeraino iristen dira, non forma estetikoa itxuragabetu egiten baita. Anbiguotasun sor bat dago proposamenean, gorputzak batu eta mimetizatu egiten baitira, bataren zentzua bestearengan dagoelarik. Bikoteko kideek, *contact* teknikaren bidez, mugimendu ausartak ikertzen dituzte, sentiberatasunari kontrajarriz.

Cuando un@ mism@ depende de otra persona, cuando ya no puede valerse por sí mism@… ¿cómo actúa el otro individuo? ¿Estará otra persona ahí para servirle de base? Llega un momento donde los límites de cada uno se difunden en un punto donde la forma estética se deforma. La ambigüedad está latente en esta propuesta donde los cuerpos se suman, se mimetizan y el sentido de uno está en el otro. Trabajo de dúo donde los intérpretes, a través de la técnica del contact, investigan movimientos arriesgados en contraposición a la sensibilidad.



**PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA**

Larunbata 10 Sábado 20:00
Igandea 11 Domingo 13:30
Iraupena / Duración: 15′

## 23 LARRUA
**"Larrua"** (Vitoria-Gasteiz)




**PROBINTZIA PLAZA**
**PLAZA DE LA PROVINCIA**

Larunbata 10 Sábado 20:30
Iraupena / Duración: 15′

Larrua emozioen transmisore gisa; instintu aberekoiena, kanpoko larru geruzak zertxobait ezkutatua. Tenperaturak, testurak, elkar ezagutzea kontaktu fisikoaren bidez, ukituz, urratuz, sakatuz, ferekatuz…*Larrua* Aritz López gasteiztarraren eta Jordi Vilaseca kataluniarraren koreografia ikerkuntza eta sorkuntza proiektua da, breakdancearen eta dantza garaikidearen arteko lengoaia komunaren bila. Ikuskizun Berri Onenaren saria Leioako Umore Azokan.

La piel como transmisor de emociones, el instinto más animal y ligeramente disimulado por una capa inicial de piel. Las temperaturas, las texturas, el reconocimiento a través del contacto físico, tocando, rasgando, presionando, acariciando… Larrua es un proyecto de investigación y creación coreográfica del gasteiztarra Aritz López y el catalán Jordi Vilaseca, que busca un lenguaje común entre el breakdance y la danza contemporánea. Premio Umore Azoka de Leioa 2016 al mejor espectáculo emergente.

# CÍA. MADUIXA

## “Mulïer” (Valentziako Erkidegoa/Comunidad Valenciana)

### ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA / PLAZA DE LA VIRGEN BLANCA

Larunbata 10 Sábado 21:00
Iraupena / Duración: 30’

*Mulïer* dantza ikuskizuna da, bost emakumek akuilu-makuluen gainean interpretatua. Emakumeak dira gure abiapuntua. Emakumezkoen identitatea gorputz jolasaren bidez aztertzeko beharretik sortu da ikuskizuna, ikusleen sentiberatasunera iristeko irudia, ikusizko poetika eta narrazioa azpimarratuz. Omenaldia egin nahi diegu mendeetako opresioaren aurrean beren ni basatiari bizirik eusteko borrokatu duten eta borrokatzen jarraitzen duten emakumeei, gure gizarteko kale eta plazetan aske dantzatu eta korrika egiteko eskubidea eskatzen duten horiei. Kaleko arteen estreinaldi onenaren Moritz saria 2016ko Tàrregako Firan.

*Mulïer* es un espectáculo de danza sobre zancos interpretado por cinco bailarinas. Las mujeres son nuestro punto de partida. El espectáculo nace de la necesidad de explorar la identidad femenina a través del juego corporal, haciendo hincapié en la imagen, la poética visual y la narración para llegar a la sensibilidad del espectador. Este espectáculo es un homenaje a todas las mujeres que durante siglos y siglos de opresión han luchado y siguen luchando para mantener vivo su yo salvaje, y que reclaman su derecho de bailar y correr libremente por las calles y plazas de nuestra sociedad. Premio Moritz de FiraTàrrega 2016 al mejor estreno de artes de calle



## 25 KUKAI DANTZA & BRODAS BROS
**“Topa”** (Euskadi-Katalunia/Cataluña)



**PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA**

Larunbata 10 Sábado 21:00
Iraupena / Duración: 45’

Lau gazte plaza batean daude. Gure hirietako edozein plaza izan liteke. Musika entzundakoan gazteek dantzari ekin diote. Euskal dantza tradizionalean trebatutako dantzariak dira batzuk. Hip hop-eko dantzariak beste batzuk. Kaleak batzen ditu, haien bizi-esparruak, alegia. *Topa* ikuskizunak lau interpreteren batura proposatzen du. Hala bada, nork bere jatorri artistikoei uko egin gabe, talde bizi eta energiko batean elkartuko dira, elkarrenganako ezagutzaren bidez interpretatzaileak aberastu ahal izan daitezen. *Topa* kale-lana osatuko dute elkarlanean, eta bertan espazio eszeniko bihurtuko da hiriko esparrua ikusleen laguntzari esker.

Cuatro jóvenes se encuentran en una plaza. Puede ser una plaza cualquiera en nuestras ciudades. Suena una música y los jóvenes arrancan a bailar. Algun@s son bailarines formados en danza tradicional vasca. Otr@s bailarines de hip hop. La calle, su espacio vital, los une. *Topa* propone la unión de cuatro intérpretes, que preservando sus orígenes artísticos, se unen en una formación vital y enérgica enriqueciendo a sus intérpretes a través del conocimiento de sus compañer@s. Junt@s compondrán *Topa*, una pieza de calle en la que el espacio urbano se transformará en espacio escénico con la colaboración del público.

## 26 SHE’SOPHI
**“Sophipoppins”** (Vitoria-Gasteiz)

**GOIURI JAUREGIA / PALACIO DE VILLA SUSO**

MADE IN GASTEIZ

Larunbata 10 Sábado 21:00
Iraupena / Duración: 40’
Helduentzako ikuskizuna, gonbit-txartelaz
Espectáculo para adultos con invitación (*)



Kontzertu “underfolkkukia” hiriko altueretatik. Ilargi betea teilatuetatik. Bistarik onenak, zarataren gainetik. Eta She’Sophi, bere gitarra akustikoarekin. Musikagile eta kantari arabarra 19 urte besterik ez zuela hasi zen musikaren munduan, punk, hard-rock eta rock banda lokaletan bateria joz. 2009an bere kantuak konposatzen eta jotzen hasi zen. Beti originala, beti ezberdina, KaldeArten goi mailako kontzertua proposatzen du.

Concierto underfolkkuki desde las alturas de la ciudad. La luna llena desde los tejados. Las mejores vistas por encima del bullicio. Y She’Sophi con su guitarra acústica. La compositora y cantante alavesa empezó en esto de la música con solo 19 años tocando la batería en varias bandas de punk, hard-rock y rock locales. A partir de 2009 comenzó a componer y tocar sus propios temas. Siempre original, siempre diferente, propone en KaldeArte un concierto de altura.

(*)Gonbidapenak ekainaren 3tik aurrera jaso ahalko dira, KaldeArtek Urrezko Zeledonen plazan jartzen duen informazio gunean. Lekuak mugatuak dira.
Las invitaciones se podrán recoger a partir del 3 de junio en el stand informativo de KaldeArte situado en la plaza de los Celedones de oro. Aforo limitado.

## 27 NUEVEUNO
**“Sinergia 3.0”** (Madril-Madrid / Italia)

### FORU PLAZA / PLAZA DE LOS FUEROS

Larunbata 10 Sábado 23:00
Iraupena / Duración: 60’

*Sinergia 3.0* dantza, malabareak, orekak eta teknologia nahasten dituen ikuskizun bisual eta samurra da, jatorrizko musika zoragarri batez lagunduta. Leonardo da Vinci errenazentistaren berrinterpretazioa, era sotil eta sentibera batean publikoa norberaren konfiantzari eta gizarte-egokitzapenari buruz hausnartzera daramana.
Musikak, eszenografiak, argiztapenak eta emozioak bat egiten dute ordubetez, publiko orotarako zirku garaikideko ikuskizunean. Egurretik metalera, akustikotik elektronikora, banakotasunetik... sinergiara.

*Sinergia 3.0* es un espectáculo visual y enternecedor que combina danza, malabares, equilibrios y tecnología sobre una fantástica música original. Una reinterpretación del renacentista Leonardo da Vinci que sumerge al público, de manera sutil y emocional, en una libre reflexión sobre la confianza personal y la adaptación social en la actualidad.
Música, escenografía, iluminación y emoción evolucionan paralelas durante una hora de circo contemporáneo para todos los públicos. De la madera al metal, de lo acústico a lo electrónico, de la individualidad.....a la Sinergia.



## 28 TURUKUTUPA
**“Basuromio”** (Vitoria-Gasteiz)

### ARKA PLAZA / PLAZA DEL ARCA

MADE iN GASTEiZ

Larunbata 10 Sábado 23:00
Iraupena / Duración: 45’

Zaharkitze programatuaren gaia lantzen duen soinu ikuskizuna da Basuromio. Gauza eta gizaki zaharkituek jolasaren gozamenaren bitartez bizitza “erabilgarri” berri bat lortzeko aukerak bilatzen dituzte. Denboratik kanpo dauden bi birziklatzailek beren inguruan dauden objektuekin maitasun harreman bat bilatzen dute, kolore eta soinu zaharrez beteta dagoen mundu batean murgiltzen diren bitartean. Berria erosi, zaharra bota!

Espectáculo de teatro sonoro, que aborda el tema de la obsolescencia programada —tanto de los productos como del propio individuo, en su impulso creativo espontáneo— mediante la recuperación del placer de jugar. Productos y personas obsoletas que buscan nuevas facetas o posibilidades de alargar su “vida útil”. Dos recicladores fuera del tiempo en una relación afectiva con unos objetos que les acompañan en un deambular mecánico y onírico, creando una atmósfera llena de viejos colores y sonidos de otras épocas. ¡Compre una nueva y tire la vieja!



## 29 MEN IN COATS

**"Men in coats"** (Erresuma Batua-Reino Unido)

**AIHOTZ PLAZA / PLAZA DEL MACHETE**

Igandea 11 Domingo 11:30, 13:30, 19:00
Iraupena / Duración: 25'
Jende ororentzat / Para todos los públicos

*Men in coats* Michael Dow-en konpainia komikoa da: berokia, txandala eta kirol oinetakoak daramatzaten gizon horiek hitzik gabeko entretenimenduaren maisuak bihurtu dira mundu erdian. 1999an Edinburgoko Fringe jaialdian arrakasta lortu eta Londresko Hackney Empire's New Act of the Year saria irabazi zutenetik, herrialde ugaritan eta munduko jaialdi ospetsuenetan ibili dira biran. Agertoki baten gainean lortu daitekeenaren itxaropenak berriro definitzeko gauza dira ikusizko umore original eta benetan entretenigarriaren bidez, magia trukuak ere tartekatuz. Asmamenez betetako kolpeak, trebetasun txundigarria, emozioa, soiltasuna eta ustekabea, eta agian inork barrez igaro dezakeen ordu zoriontsuenetako bat.

*Men in coats* es la compañía cómica de Michael Dow, unos hombres con abrigos, chándal y zapatillas que se han convertido en los maestros del entretenimiento sin palabras en medio mundo. Desde que su espectáculo fuese un éxito en el Festival Fringe de Edimburgo en 1999 y ganasen en Londres el Hackney Empire's New Act of the Year, ha girado por infinidad de países y por los festivales más grandes y prestigiosos del mundo. Son capaces de redefinir las expectativas de lo que puede lograrse en un escenario con un humor visual, original y muy entretenido combinado con trucos de magia. Gags llenos de inventiva, apabullante destreza, emoción, sencillez y sorpresa, y quizá una de las horas más felices que alguien pueda pasar riéndose...



## 30 LA PEQUEÑA VICTORIA CEN

**"Gigante"** (Gaztela eta Leon / Castilla y León)

**URAREN LORATEGI SEKRETUA (FLORIDAKO IBILBIDEA)**
**JARDIN SECRETO DEL AGUA (PASEO DE LA FLORIDA)**

Igandea 11 Domingo 12:00, 19:30
Iraupena / Duración: 50'
Jende ororentzat / Para todos los públicos
Lekuak mugatuak dira / Aforo limitado

Proposamen intimo eta gertukoa, zirkua, antzerkia eta poesia fusionatzen dituen adierazpide bat lortu nahi duena. Zirku eta antzerki ikuskizuna, zolitasunez eta ustekabez egina, Jorge Pascual poeta leondarraren testuetan oinarritua. Hiru pertsonaia eta dimentsio berria hartzen duten eguneroko objektuak —besaulki bat, aulkitxo bat— akrobazia, poesia, malabare, dantza eta musikarekin estuki nahasten direnak. Txikiaren eta egunerokoaren handitasunaren bila. Eta erraldoiaren txikitasunaren eta alde sentikorraren bila.

Propuesta íntima y cercana que se mueve en la busqueda de un lenguaje expresivo que fusione el circo, el teatro y la poesia. Un espectaculo de circo-teatro hecho de sutilezas y momentos sorprendentes inspirado en diferentes textos del poeta leonés Jorge Pascual. Tres personajes y objetos cotidianos como un sillón o un taburete, que cobran una nueva dimension y se combinan intimamente con las acrobacias, la poesia, los malabares, la danza y la música. Buscando la grandeza de lo pequeño y cotidiano. Y la pequeñez y el lado sensible del gigante.



## 31 CAPITÁN MARAVILLA

**"El asombroso Dave Wonderthing"** (Andaluzia / Andalucía)

**FORU PLAZA / PLAZA DE LOS FUEROS**

Igandea 11 Domingo 12:00
Iraupena / Duración: 45'
Jende ororentzat / Para todos los públicos

Capitan Maravilla Productions-entzat ohorea da ikuskizun hau aurkeztea, zeinean Dave Wonderthing harrigarriak magia, iheslaritza eta beste balentria batzuk eskainiko baitizkigu. Ezinezkoaren artista bitxi horrek suspentsea, arriskua, nahasmena eta, bereziki, umorea baliatuko ditu ikusleak dibertitzeko. Wonderthing pertsona bakarreko ikuskizuna da, zeinean umorea magiarekin, iheslaritzarekin eta malabareekin nahasten baitira.



Capitan Maravilla Productions se complace en presentarles un espectáculo donde nos adentraremos en el mundo de la magia, el escapismo y demás proezas de la mano del asombroso Dave Wonderthing, un peculiar artista de lo imposible, que hará del suspense, el peligro, el desconcierto y sobre el humor sus principales armas para entretener y divertir a su audiencia. Wonderthing es un espectáculo unipersonal donde se fusionan con el humor la magia, el escapismo y los malabares.

## 32 WILBUR

**"Wilbur"** (Valentziako Erkidegoa / Comunidad Valenciana)

**FALERINA LORATEGIA / JARDÍN DE FALERINA**

Igandea 11 Domingo 12:30, 19:00
Iraupena / Duración: 50'
Jende ororentzat / Para todos los públicos

Wilbur akrobazia, umore eta arriskuz jositako ikuskizuna da, arrisku handiz, horixe baita Wilburren bizitzeko modu bakarra. Ohiz kanpoko teknika eta fisiko baten jabe, ezinezko egoerak sortuko ditu, publikoa zur eta lur utziko dutenak. "Contractura", "Tirón" eta "Desgarro" lagun banaezinek lagunduta, akrobazia kirola baino gehiago dela erakutsiko digu. Wilbur, publikoa ukituko duen ikuskizuna (literalki).

Wilbur es un espectáculo plagado de acrobacias, humor y riesgo, mucho riesgo: la única manera en la que Wilbur sabe vivir. Con una técnica y un físico fuera de lo común creará situaciones imposibles que dejarán al público anonadado. Acompañado de sus amigos inseparables, Contractura, Tirón y Desgarro, nos demostrará que la acrobacia no es sólo un deporte. Wilbur, un espectáculo que impactará en el público (literalmente).



## 33 HORTZMUGA
**"Femmes"** (Euskadi)

**KALEZ KALEKO IKUSKIZUNA (Hasiera: Arka plaza) / ESPECTACULO ITINERANTE (Comienzo: plaza del Arca)**

Igandea 11 Domingo 12:30
Iraupena / Duración: 60'
Jende ororentzat / Para todos los públicos




Lau atso suminduk, lau amona iraultzaile eta aldarrikatzailek, gizartearen desilusio, atsekabe eta nahigabeaz ohartuta, zigorbidea euren esku hartu eta iraultza egitea erabaki dute, komunikabideetan zein kalean ikusi eta entzuten duten guztia oinarri hartuta. Mugimendu berri bat sortu dute orduan, oldarkortasunezko metodo zentzugabeen eta protesta erabat desegokien bitartez mundua iratzarriko duen mugimendua. Neoaktibista sozial bilakatu diren atso batzuen aldarrikapen kantua da *Femmes,* aldarrikapen politikoki ezegokia; umorean oinarrituta, bizi/borroka/protesta egiteko modu berri bilakatu baitute probokazioa.

Cuatro ancianas indignadas, cuatro abuelas revolucionarias y reivindicativas, conscientes de la situación de desencanto, insatisfacción y descontento social y empapadas de todo lo que ven y escuchan en los medios y en la calle, decidirán tomarse la justicia por su mano y hacer una nueva revolución, un nuevo movimiento que despierte al mundo con métodos agresivamente absurdos y protestas radicalmente inconvenientes. *Femmes* es un canto reivindicativo y políticamente incorrecto de un grupo de ancianas reconvertidas en neoactivistas sociales que desde el humor hacen de la provocación una nueva forma de vida/de lucha/de protesta.

## 34 CÍA. PASSABARRET
**"Tandarica Circus"** (Katalunia / Cataluña)



**FORU PLAZA / PLAZA DE LOS FUEROS**

Igandea 11 Domingo 13:00
Iraupena / Duración: 55'
Jende ororentzat / Para todos los públicos

Haiek "retro-balkan-rock'n'roll circus" deritzote, baina argi eta garbi mintzatuz, pitzatuta dauden lau pailazo zoro besterik ez dira, publikoa pozteko edozer egiteko gauza direnak: sabelean kanoikada bat jotzetik aireko errutinak inprobisatu edo miopia larria duen aizto-jaurtitzaile batekin jolasteraino. Bizitza jokoan jartzen duten artistak dira, eta berea ez bada... publikoko norbaitena! Ezin duzu hurrengo ikuskizuna galdu: funtzio bakoitza azkenengoa izan daiteke eta! Testu eta numero sinesgaitzak zirku-ikuskizun absurdo, erritmo bizi-biziko eta barrez lehertzeko moduko baterako.

Ellos lo llaman "retro-balkan-rock'n'roll circus" pero, hablando en plata, son sólo cuatro payasos locos como un cencerro y capaces de cualquier cosa para satisfacer a su público, desde dispararse un cañonazo en el estómago, improvisar rutinas aéreas o jugar con un lanzador de cuchillos con miopía severa. Son artistas de aquellos que se juegan su propia vida... y si no es la suya, ¡que sea de alguien del público! No puedes faltar a su próximo show: ¡cada función puede ser la última! Textos y números inverosímiles para un espectáculo de circo absurdo, con un ritmo trepidante y para morir de risa.

## 35 TIO TERONEN SEMEAK
**"Freshcool"** (Euskadi)

### ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZA / PLAZA DE LA VIRGEN BLANCA

Igandea 11 Domingo 13:00, 19:30
Iraupena / Duración: 50'
Jende ororentzat / Para todos los públicos
Euskaraz

Koadrilakoekin gelditzeko eguna da, herriko plazan trago bat hartu, dauden berriak kontatu eta ordu batzuetan errutinatik ihes egiteko egun aproposa da gaurkoa. Lagun arteko konplizitateak, adar jotzeak eta harrotasunezko apustuak azalduko dira. Orduak pasa ahala, eta ligatzeko esperantza inoiz galdu gabe, iluntasunak gure gorputzak aktibatuko ditu. Gau osoan zehar leku eta egoera egoki baten bila ibiliko gara gure ilusioak egi bihurtzeko esperantzaz. Hau lortzea ikusleen esku egongo da ordea. Umorez betetako ikuskizun dantzatua, orain arte inoiz ikusi ez den bezala.

Hoy es un día perfecto para quedar con la cuadrilla, tomar algo en la plaza del pueblo, contarse las últimas noticias y escapar por unas horas de la rutina.

Aflorarán las complicidades entre amigos, las tomaduras de pelo y las apuestas fanfarronas. Tras unas horas, como nunca perdemos la esperanza de ligar, la oscuridad activará nuestros cuerpos. Pasaremos la noche buscando el lugar y el momento adecuados, con la esperanza de que nuestras ilusiones se conviertan en realidad. Sin embargo, dependerá del público que lo consigamos. Espectáculo bailado, lleno de humor e inédito.



## 36 UP ARTE
**"Todo encaja"** (Murtzia / Murcia)



### ESPAINIA PLAZA / PLAZA DE ESPAÑA

Igandea 11 Domingo 13:30

### ARKA PLAZA / PLAZA DEL ARCA

Igandea 11 Domingo. 18:30
Iraupena / Duración: 40'
Jende ororentzat
Para todos los públicos

*Todo encaja* lan fresko eta bisuala da. Sei kideek musikaren poza eta emozio bizienak kutsatuko dizkiete ikusleei, *banquina* jauziak, hegaldiak eta giza dorreak eginez, eta akrobaziaren alderdi pertsonalena eta dibertigarriena erakutsiz ikuskizun osoan: hobetzeko gogoa, konfiantza eta grina, publikoa gozaraziko duen espazio soil batean. Prest izan arnasari eusteko. Agertokian gora, behera, dantzan ibiliko dira, baina batez ere, jauzika! Off festival Circada (Sevilla) saria.

*Todo encaja* es una obra fresca, visual, donde sus seis componentes contagiarán al espectador con la alegría de su música y de emociones más intensas mediante saltos de banquina, vuelos y torres humanas, dejando ver el lado más personal y divertido de la acrobacia, una muestra de superación, confianza y entusiasmo durante todo el espectáculo dentro de un espacio sencillo que hará al público disfrutar del show. Prepárense para contener el aliento. Cuerpos sobre el escenario suben, bajan, bailan, pero sobre todo ¡saltan!. Premio Off festival Circada (Sevilla).

## GETBAK
**"La ley de Lassus"** (Katalunia / Cataluña)



**FORU PLAZA / PLAZA DE LOS FUEROS**

Igandea 11 Domingo 20:30
Iraupena / Duración: 60'
Jende ororentzat / Para todos los públicos

Zer pizten da gugan musika entzuten dugunean? Zergatik ematen digu altxatzeko eta mugitzeko indarra, baita unerik gogorrenetan ere? Hauxe da Lassus-en Legea, eta gurekin 60 minutuz bizi dezazun nahi dugu. Hip hop eta funk-aren klasikoak zuzenean nahasten dira, eta agertokiaren gainean 14 dantzari, energiaz eta sentsazio berriez betetzeko xedea duen dantza leherkari batean.

¿Qué es eso que despierta en nosotros cuando escuchamos música? ¿Por qué incluso en los momentos más duros nos da fuerzas para levantarnos y movernos? Esto es la Ley de Lassus y queremos que la vivas con nosotros durante 60 minutos. Clásicos del hip hop y el funk en directo se fusionan con 14 bailarines sobre el escenario en una danza explosiva que busca llenarte de energía y nuevas sensaciones.



### Dantza urbanoari buruzko maisu-eskola umeentzat
### Master class infantil de danza urbana

**PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA**

Larunbata 10 Sábado 10:30
Iraupena / Duración: 60'
9-12 bitarteko umeentzat / Para niñ@s de 9 a 12 años (*)

Erdi mailako maisu-eskola proposatzen da, baina parte-hartzaileen behar edo egoerara moldatuko da. Dantza urbanoekiko ilusioa piztu eta prestakuntza garatzea da helburu nagusia, dantza hauek aurkeztuz: hip hop, locking, popping eta house. Ariketak, espazioaren kontzientzia eta bikote mugimenduak landuko dira.

Se propone una masterclass de nivel intermedio, siempre ajustada a las necesidades o situación de los participantes. El objetivo principal es mantener la ilusión y el desarrollo formativo de las danzas urbanas presentando el hip hop, locking, popping y house. La actividad consta de ejercicios, consciencia del espacio y movimientos en pareja.

### Dantza urbanoari buruzko maisu-eskola helduentzat
### Master class de danza urbana para adultos

**PROBINTZIA PLAZA / PLAZA DE LA PROVINCIA**

Larunbata 10 Sábado 12:00
Iraupena / Duración: 60 (*)

Maisu-eskolak erronka jo nahi die parte hartzaileei, maila aurreratuko koreografia eta ariketak proposatuz, estilo bakoitzeko askotariko teknikak nahasten dituztenak: hip hop, locking, popping, house eta breakdance.

La masterclass busca proponer un reto a l@s participantes con coreografías y ejercicios de nivel avanzado que combinen técnicas diversas propias de cada estilo: Hip hop, locking, popping, house y breakdance.

(*) Ekainaren 3tik izena eman behar da KaldeArtek Urrezko Zeledonen plazan jartzen duen informazio gunean. Lekuak mugatuak dira.
Se requiere inscripción previa a partir del 3 de junio en el stand informativo de KaldeArte situado en la plaza de los Celedones de oro. Plazas limitadas.

## INFORMAZIO GUNEA

Urrezko Zeledonen plaza (Postetxearen aurrean).
Ekainaren 3tik 8ra, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era
Ekainaren 9tik 11ra, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

## STAND INFORMATIVO

Plaza de los Celedones de Oro (frente a Correos)
Del 3 al 8 de junio: de 12:00 a 14:00 y de 18:00 a 20:30
Del 9 al 11 de junio (viernes, sábado y domingo): de 10:00 a 14:00 y de 17:00 a 21:00.



**Goza ezazue Jaialdian! Kalean ikusiko dugu elkar!**

**¡Buen Festival y nos vemos en la calle!**